


2009



OROITIDAZKIA

LEHIAREN DEFENTSAKOKO EUSKAL ZERBITZUA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

EKONOMIA ETA
OGASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA
Y HACIENDA

AURKIBIDEA


1. ZEHAPEN ESPEDIENTEAK	3
2. ERAKUNDE OFIZIALETAN PARTE HARTZEA	5
3. AZTERLAN JURIDIKO-EKONOMIKO ETA LEHIAKOAK	6
4. ARTIKULUAK ALDIZKARI ESPEZIALIZATUETAN	7
5. ELKARGOEN ESTATUTUEI BURUZKO TXOSTENAK	7
6. LANKIDETZA HARREMANAK BESTE ERAKUNDEEKIN	9
7. ARAUGINTZAKO JARDUNA.....	9
8. BESTELAKO ADMINISTRAZIO-JARDUERAK	10
9. MINTEGI, JARDUNALDI ETA KONGRESU EKINTZETAN PARTE HARTZEA	10




1. ZEHAPEN ESPEDIENTEAK

Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzua 9 espediente izapidetzen hasi da 2009an zehar.

Hasitako espedienteen kopurua




Sektoreak



2009an hasitako espedienteen ibilbidea honelakoa izan da:

- ☞ LDEAri artxibatzeke proposamena, arau-hausterik antzeman ez zelako 4
- ☞ LDEAri artxibatzeke proposamena, LBNren eskumena zelako 1
- ☞ Izapidetze-lanetan 4

Espedienteen egoera



Era berean, Zerbitzuak 2007. eta 2008. urteetan hasitako 9 espedienteren izapideak amaitu ditu.

2007an hasitako 6 espedienteak honela burutu dira:

- ☞ Espediente bat Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiari (LDEA) helerazi zaio, Lehiaren Batzorde Nazionalari (LBN) bidaltzeko, eskumenik ez izateagatik.
- ☞ 5 espediente -bakoitzaren ebazpen proposamenarekin batera- Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiari (LDEA) bidali zaizkio. Horietako baten Auzitegiak adostutako ikustaldian parte hartu da. Beste baten proposamena hirukoitza izan zen: artxibatzea, itundutako amaiera edo zigorra proposatu ziren erakundearen arabera.

2008an hasitako 3 espedienteak artxibatzea proposatu zaio LDEAri.



Bestalde, aurrera darrai 2007. eta 2008. urteetan hasitako espediente banaren izapidetzak. 2007koan, profesionalen elkargoei hainbat sustapen ekintza zuzendu zaizkie, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiaren 2008ko urriaren 29ko Ebazpena betetzearren (4/08 Ebazpena, Bizkaiko eta Gipuzkoako Higiezin Jabetzako Agenteak). Ekintza horiei zuzen-zuzen eragin die urtean zehar prestatutako *abenduaren 22ko 25/2009 Legeak, Zerbitzu-jardueretan askatasunez sartu eta aritzeari buruzko Legea egokitzeko zenbait lege aldatzen dituenak.*

Azkenik, Zerbitzuak zaindu du LDEAk ezarritako 3 zehapen bete ote diren, honako sektore hauetan: aseguruak, garraioa eta kirolak.

2. ERAKUNDE OFIZIALETAN PARTE HARTZEA

2009ko uztailaren 20an eta urriaren 16an Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak parte hartu zuen *1/2002 Legea aplikatzeko kasuak esleitzeko irizpideak zehazteari buruzko Lan Taldearen* bileretan. Lehiaren Batzorde Nazionalak (LBN) antolatu zituen bilerak, Lehiaren Defentsarako Kontseiluak aginduta.



3. AZTERLAN JURIDIKO-EKONOMIKO ETA LEHIAKOAK

Zerbitzuak ondorengo azterlan juridiko-ekonomiko eta lehiakoak argitaratu eta banatu ditu:

- 📎 *Euskal Autonomia Erkidegoko lehia-egoera.*
- 📎 *Igogailuen instalazioa eta mantentze-lana Euskal Autonomia Erkidegoan.*



Halaber, *Hileta*-zerbitzuak *Euskal Autonomia Erkidegoan* azterlana landu dira.



4. ARTIKULUAK ALDIZKARI ESPEZIALIZATUETAN

Artikulu hauek argitaratu dira:

- ⇒ “Colegios Profesionales y defensa de la Competencia: la experiencia vasca”, *Gaceta Jurídica de la Unión europea y de la Competencia* aldizkaria, 12. alea.
- ⇒ “La defensa de la competencia”, *Rekalde Bihotzean* Errekaldeko Merkatarikari Elkartearen informazio Buletina, 5. alea.



5. ELKARGOEN ESTATUTUEI BURUZKO TXOSTENAK

Zerbitzuak honako elkargoen hauen estatutuei buruzko txostena eman du:

1. Bilboko Aduanetako Agenteen eta Komisio-Harzaileen Elkargo Ofiziala
2. Irungo Aduanetako Agente eta Komisio- Hartzaileen Elkargo Ofiziala
3. Pasaiaiko Aduanetako Agenteen eta Komisio-Hartzaileen Elkargo Ofiziala
4. Arabako Albaitarien Elkargoa
5. Bizkaiko Albaitarien Argi Legezko Elkargoa
6. Gipuzkoako Albaitarien Elkargo Ofiziala
7. Arabako Aparejadoreen eta Arkitekto Teknikoen Elkargo Ofiziala
8. Bizkaiko Aparejadoreen eta Arkitekto Teknikoen Elkargo Ofiziala
9. Gipuzkoako Aparejadoreen eta Arkitekto Teknikoen Elkargo Ofiziala
10. Aseguru-Bitartekari Tituludunen Arabako Elkargoa
11. Aseguru - Bitartekari Tituludunen Bizkaiko Elkargoa
12. Euskadiko Biologoek Elkargo Ofiziala
13. Arabako Barne Dekoratzailen/Diseinatzaileen Elkargo Ofiziala
14. Bizkaiko Dekoratzailen Elkargo Ofiziala
15. Gipuzkoako Dekoratzailen Elkargo Ofiziala



16. Euskadiko Delineatzaileen Kontseilua eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Delineatzaileen Elkargo Ofizialak
17. Ekonomiarrien Euskal Elkargoa
18. Gipuzkoako Erizaintza Kolegio Ofiziala
19. Arabako Erizaintzaren Kolegio Ofiziala
20. Arabako Sendagaigileen Elkargo Ofiziala
21. Bizkaiko Farmazialarien Elkargo Ofiziala
22. Gipuzkoako Sendagaigileen Elkarte
23. Bizkaia eta Arabako Filosofi-Letra eta Zientzietzako Doktore eta Litzentzatu
24. Euskal Autonomia Erkidegoko Fisioterapeuten Lanbide-Elkargoa
25. Euskadiko Podologoaren Elkargoa
26. Gizarte Lanetan Diplomadunen eta Gizarte Laguntzaileen Arabako Elkargoa
27. Gizarte Lanetan Diplomadunen eta Gizarte Laguntzaileen Elkargo Ofiziala
28. Arabako Industri Ingeniarrien Elkargo Ofiziala
29. Bizkaiko Industri Ingeniarrien Elkargo Ofiziala
30. Gipuzkoako Industri Ingeniarrien Elkargo Ofiziala
31. Euskadiko Informatika Ingeniarrien Elkargo Ofiziala
32. Higiezinaren Jabetza - Agenteen Arabako Elkargo Ofiziala
33. Higiezinaren Jabetza-Agenteen Bizkaiko Elkargo Ofiziala
34. Higiezinaren Jabetza - Agenteen Gipuzkoako Elkargo Ofiziala
35. Euskal Autonomia Erkidegoko Kudeatzaile Administrazioaren Elkargoa
36. Arabako Lan Harremanetako Graduatuen Elkargo Ofiziala
37. Bizkaiko Lan Harremanetako Graduatuen Elkargo Ofiziala
38. Bizkaiko Lursail-Administrazioaren Lurralde Elkargoa
39. Arabako Merkataritza Agenteen Elkargo Ofiziala
40. Bizkaiko Merkataritza Agenteen Elkargo Ofiziala
41. Gipuzkoako Merkataritza Agenteen Elkargo Ofiziala
42. Arabako Merkataritza eta Enpresetako Tituludunen Elkargo Ofiziala
43. Bizkaiko Merkataritza eta Enpresetako Tituludunen Elkargo Ofiziala
44. Gipuzkoako Merkataritza eta Enpresetako Titulodunen Elkargo Ofiziala
45. Arabako Odontologo eta Estomatologoaren Elkargo Ofiziala



46. Bizkaiko Odontologo eta Estomatologoek Elkargo Ofiziala
47. Gipuzkoako Odontologo eta Estomatologoek Elkargo Ofiziala
48. Arabako Epategietako Prokuradoreen Elkargo Ohoretsua
49. Bizkaiko Auzitegietako Prokuradoreen Elkargoa
50. Gipuzkoako Prokuradoreen Elkargoa
51. Arabako Psikologoek Elkargo Ofiziala
52. Bizkaiko Psikologoek Elkargo Ofiziala
53. Gipuzkoako Psikologoek Elkargo Ofiziala
54. Arabako Sendagileen Elkargo Ofiziala
55. Bizkaiko Sendagileen Elkartea
56. Gipuzkoako Sendagileen Elkargo Ofiziala
57. Soin-Hezkuntzako Irakasleen eta Lizentziatuen Euskal Autonomia Erkidegoko Elkargo Ofiziala
58. Euskadiko Terapeuta Okupazionalen Lanbide Elkargoa
59. Bizkaiko Toki Arduralaritzako Diruzain, Artekari eta Idazkarien Kolegio Ofiziala

6. LANKIDETZA HARREMANAK BESTE ERAKUNDEEKIN

Eusko Jaurlaritzako Lehendakariarekin eta Justizia eta Herri Administrazio Sailarekin batera aztertu da nola aplikatu 2006ko abenduaren 12ko 2006/123/EE Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, Barne-merkatuko zerbitzuei buruzkoa (Zerbitzuen Zuzentaraua).

7. ARAUGINTZAKO JARDUNA

Zerbitzuak hasiera eman die Lehiaren Euskal Agintaritzaren Legea izango denaren aurretiko lan juridikoei.



Gainera, hurbil-hurbiletik jarraitu dira *Zerbitzu-jardueretan askatasunez sartu eta aritzeari buruzko Legea egokitzeko zenbait lege aldatzen dituen abenduaren 22ko 25/2009 Legearen* izapideak.

8. BESTELAKO ADMINISTRAZIO-JARDUERAK

Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarte publikoarekin batera (EJIE) espedienteak kudeatzeko aplikaziorako modulu informatikoa burutu dugu; modulu horri esker interesdunek espedientearen egoera kontsultatzea izango dute euren etxetik bertatik.

Lehiaren Defentsa dela eta, Zerbitzuak 20 elkarrizketa izan ditu hainbat sektoretako eragileekin.

9. MINTEGI, JARDUNALDI ETA KONGRESU EKINTZETAN PARTE HARTZEA

Zerbitzuak hitzaldia eman du ikastaro honetan:

- 📌 *El sector servicios ante el Derecho de la Competencia: Retos y Desafíos*, Euskal Herriko Unibertsitateko 2009ko Uda Ikastaroa, ekainaren 29tik uztailaren 1era bitartean egindakoa.

Bestalde, Zerbitzuaren teknikariak ondorengo ekitaldi hauetan bertaratu dira:

- 📌 *Futbol eta lehiakortasuna: Ikus-entzunezko eskubideak eta arauak*, Lehia Euskadin III. Jardunaldia, 2009ko martxoaren 13an Bilbon izandakoa, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak antolatuta.





- 📌 *La política de control de ayudas publicas ante la crisis económica y financiera, laneko gosaria, 2009ko martxoaren 31an Bilbon izandakoa, Ekonomisten Euskal Elkargoak antolatuta.*
- 📌 *Crisis económica y Política de la Competencia, Lehiaren Defentsarako III Nazio Jardunaldiak, 2009ko ekainaren 18an eta 19an Valentzian izandakoa, Lehiaren Defentsarako Valentziako Erkidegoko Auzitegiak antolatuta.*
- 📌 *El sector servicios ante el Derecho de la Competencia: Retos y Desafíos, Euskal Herriko Unibertsitateko 2009ko Uda Ikastaroa, ekainaren 29tik uztailaren 1era bitartean egindakoa.*

